


NodeJS, Express eta MongoDB. Ariketak

Bezeroen datuak bistartzean, bezeroa bakoitzaren izenaren ondoan, "Ezabatu" eta "Editatu" estekak bistaratu, hurrengo irudian bezala:



← → ↻ ⓘ localhost:3000

Bezero berri bat txertatu/editatu


Izena:

Abizena:

Email:

Bezero zerrenda

- Jon Juanenea [Editatu](#) [Ezabatu](#)
- Oihane Lete [Editatu](#) [Ezabatu](#)
- Aitor Martikorena [Editatu](#) [Ezabatu](#)



Bezeroak editatu eta ezabatzeko estekak izango ditugu. Ohar zaitez esteka bakoitzean bezeroaren identifikatzailea sartu dugula.

- “Ezabatu” estekan sakatzean, erabiltzaileari alerta bat pantailaratu behar zaio, ezabaketa egiteko ziur dagoen egiazta dezan. Baietz erantzunez gero, aukeratutako bezeroa datubasetik ezabatu eta zerrenda eguneratuta bistaratu behar da.
- "Editatu" botoian sakatzean, bezeroen datuak (izena, abizena, email helbidea) inprimakian agertuko dira, erabiltzaileak editatu ditzan. “Gorde” botoian sakatzean, erabiltzaile horren datuak datubasean eguneratuko dira. Erabili horrelako kodea:

```
db.bezeroak.update(  
  "query": { "_id" : ObjectId("5ed4c9cb64dd7facd8008fbb") },  
  "update": {  
    $set : {  
      "izena" : "Oihane",  
      "abizena": "Letamendia",  
      email: "Oihane@ni.eus" } }, function() {  
    console.log("Eguneraketa ondo burutu da";  
    // berbideraketa egin  
  });
```

Soluzioa:

<https://github.com/juananpe/html5liburua>